

ATZO

FREGONA mutur batetik bestera darama, indarge, eta, pasillo estuaren izkina bakoitza jotzen duenero, badirudi azken hantsa ematera doala. Draz, draz. Lur berdean iltzatuak ditu bere begi argiak, gardenak ia, bustita uzten dituen zatien distira iheskorrek, kasik ikusezinek, aurrera jarraitzeko adorea emango baliote legez. Draz, draz. Urte luzez, luzeegiz, jardun berean aritu denaren mugimendu ia mekanikoekin badoa lana betetzen, orain eskuinera, orain ezkerrera, eta pauso bat atzera. Eta ematen du korridorea, urteen iragate geldoa nola, ez dela sekula bukatzen. Draz, draz.

Kanpotik heltzen diren zaratotsek ez dute batere asaldatzen. Iduri luke ez dagoela inor esku zimur, beso zimel eta oin baldar horien barruan. Iduri luke ez dela han inor, arrakalek zulatutako azal zuri horren azpian ez dela ezer. Hutsa.

Draz, draz. Azken mugimendua, ezker-eskuin, eta kito. Iritsi da pasilloaren amaierako leihora. Fregonaren makila askatu eta buelta eman du Fredek. Burua nekez altxatu duenean ikusi du, han urrunean, goizaren ertz bat argitzen hasi dela.

–Eta zuk zer egiten duzu hemen?

Galdera entzutearekin batera taldetik aldendu da Telmo, badaki-eta zer datorkion gainera.

–Eta ez zaitez hasi berriro iraultza egitera joan zineneko istorio zoro hori kontatzen! Leloak garelakoan ala?

Iraultzaileak ez daude ondo ikusita bertan. Bandera gorriak dantzan jartzeko haize gutxi dabil aspaldi luzean.

–Beste istorioren bat asmatzeko astia izango zenuen ba!

Eskuak poltsikoan, indarrez heltzen die paper pusketa batzuei, kasik zimurtzeraino. Jakin badaki hori duela bere egiaren froga bakar. Paper horailduan, munduaren bestaldetik, umetako lagunak trakets idatzitako lerroak. Eta Telmori ere kosta egiten zaio sinestea. Egun bat bai egun bat ez janarazten dizkieten pilulek memoria lainotzen diote, eta akorduan dituen hara heldu aurreko irudi lausoak ez zaizkio oso lagungarri. Jakin nahiko luke nola ailegatu diren paper horiek bere poltsikora, zergatik iritsi ziren orain beti aldean daramatzan urak higaturiko harri haiekin, nola jakin duen lagunak bera han dela, bizirik erdi lurperatuta.

ZIGARROKINAK eskuekin apartatu behar izaten ditu Karimek alfonbra lurrean jarri aurretik. Egunean hiru aldiz egiten du keinu bera bertan, gainerako denen begien aurrean. Beste bitan, inoren begirik ez du izaten zelatan. Pentsatzen hasita dago, ordu gutxiren buruan, txoko hura beti zigarrokinez gainezka egotea ez dela kasualitatea. Baina ez dio axola.

Besapean darama alfonbra txiki gorritzat. Lurrean luze zabaldu aurretik, makurtu eta ingurua garbitzen du apur bat, gogo gutxirekin. Larruzko zapata zimelak kendu eta ertz batean paratzen ditu, beti elkarrekin eta zuzen-zuzen. Zapaten zulo hutsei begiratzen die ondoren, eta kendu zizkieten kordoiekin akordatzeko da. Kendu izan ez balizkio- te, beharbada ez zen bertan egongo, akaso gurtzera doan horren ondoan egongo zen, beste nonbait.

Alfonbra gainean jartzen da belauniko, bere begi ilunen sakontasunetik horma grisera begira. Inguruko harrabots eta oihuei, minaretetik erreztora deitzen duten sirenen hotsaren antza hartzen die. Eta egunero gauza bera. Bost aldiz. Edo akordatzeko denero.

MONTAGEK maite du batetik bestera, noragabe, pasean ibiltzea. Gelditu gabe egon daiteke orduak eta orduak, harat-honat, ibili urdurian. Ondotik pasatzen zaizkionei desfioz so egiten die, behetik gora. Txikia baita Montag, garaiera gutxikoa. Baina nekez izutuko da inoren aurrean. Aspaldi egin zion beldurrari iskin eta jasoak ditu hamaika kolpe latz gorputz osoan. Orain, borrokan aritzeko zaha- rregi, akituegi, hitzak ditu harri zorrotzenak, inori buruan arrakala sakona egiteko gertu.

Burua gora eta begiak zeruan iltzatuta ibili ohi da beti, zerbaiten esperoan balego bezala. Ilea aski urdindua, iku- siak ditu zeruan, zeruaren zati ñimiño horretan, alderik alde iragaten diren hegazkin urrunak, forma ugaritako hodei pisu eta arinak, ilargiaren azal zuloduna, eguzki gorritaren

distirak, eta txoriak... bertan sekula habiarik egiten ez duten enara migratzaileak.

Nekez geratuko du ibilia, goroldioaren beldur.

HEMEN urtarorik ez da. Hotza dago ala beroa. Hodeien baimenarekin, eguzkia ez duzu lau orduz besterik ikusiko. Eta atzera ilunpetara. Alferrik ibiliko zara zein ordu den, zein egun den, zein urtaro den galdezka.

Ez bilatu babeslekurik. Hemen ez da aterpe segururik, ez dago altzoan gordeko zaituen beso amultsurik. Alferrik eskatuko diozu haizeari ferekatu zaitzan, muxu eman diezazun. Porlan grisa eta ate berde kolorgeak. Ate beti zarratuak. Eta etengabe metalezko hots bera: sarraillak ixten dituen giltza astunarena.

PASILLO luzeak garbitzeko lanak aspaldi utzi zion batere zentzurik izateari. Mendeak izango dira, sikatu ondoren, zoruak apenas egiten duela dir-dir, ez bada Freden irudimenean. Margoa ere –berde ilun hil hori, beti berde hori– zatika erortzen ari zaio. Noizean behin arrapalada bizian agertzen diren labezomorroengatik ez balitz...

Hasieran fregona kolpe bakarrarekin, ttak, bete-betean asmatu eta bertan seko uzten zituen Fredek. Egun bakarrean bospasei zanpatu zitzakeen, behar baino kolpe bakar bat gehiago jo gabe. Jolasa zen harentzat. Txiki-txiki egiten zituenean azal lehorrak zegien kraskada zen saria. Baina

orain, urteek aurrera egin ahala, jolas makabroegia begitantzen zaio. Eta pasilloan aurrera, beti hormaren kontra, alde egiten uzten die orain, harik eta aterten baten azpitik ezkututzen diren arte. Eta hortik, auskalo nora.

Labezomorroekin denbora gehiegi galtzen ez duenean, garaiz irekitzen du *taberna*. Berak ez, bezeroek deitzen diote horrela. Denetik dauka salgai, eta bertan ez daukana, egun gutxiren buruan ekarriko diote. Baina apenas saltzen du ezer. Kafe batzuk, tabako paketeren bat, kafeinadun freskagarriak eta egunkari bakanen bat. Erretirorik ez du hartu nahi, ordea. Zer demonio egin behar du berak handik kanpo?

ORDUAK eman ditzake leiho tipitik kanpora begira, kanpoan mundurik baden asmatu ezinda. Plastikozko aulkian eseri eta paper zirriborratuz lepo dagoen mahaiaren gainean jartzen ditu oinak Telmok. Eta kristal zikinen atzean dagoenari so geratzen da, ondo jakin gabe ikusten duen hori larre berde bat, itsaso azula ala horma gris bat ote den. Jakin nahi izan gabe.

Tarteka, ohe ondora hurbiltzen da, eta burukoaren barruan ezkututzen duen tabako paketetik zigarro bat hartzen du. Eskua burukoaren zuloxoan sartzen duen bakoi-tzean, tabako bila, burua galtzen ari ote den pentsatzen du. Poltsikotik pizgailua atera, zigarro muturraren aurrean piztu eta sakon egiten du tira barrura, eta zupada bakoi-tzean ematen du zigarro osoa erre nahi duela.

Leihotik begira ez dagoenean, gutun bat idazten saiatzen da, beti gutun bera. Zirriborraturik ditu dagoeneko zientoka paper, aurre eta atze, denak mahai gainean barreiatuta. Eta letren ozeano horretan kulunkan zorabiatzen hasten denean, bolalumarekin arraun egiteari utzi eta leihotik begira jartzen da atzera, gutuna bukatu ezinda.

Bi kolpe jo dituzte atean, kax-kax, eta burua jiratu du Telmok.

NOLA jakin behar du Meka non dagoen? Dagoeneko ez da akordatzen noiz erabaki zuen horma gris horren atzean egon beharko zukeela, han nonbait. Baina erabakiari irmo eutsi dio geroztik, bere sinesmenei baino irmoago. Harriduraz begiratzen diote ondokoek, han inork fedeari nola eutsi diezaiokeen ulertu ezinda. Edo, beharbada, jakin badakitelako Meka ez dagoela horma horren atzean. Ez Meka eta ez beste ezer.

Baina Karimek etxean aspaldi ikasitako errezoak errepikatu besterik ez du egiten. Hitzek hortz artean xuxurlaka egiten diote ihes, eta bere ezpainen muga iragan ondoren, han bertan itotzen dira, urrutira gabe. Halakoetan, aitaren otoitz ozenak datozkio burura, eta bere arrebaren aurpegi-keinu otzana, Alaren aurrean belauniko. Eta amaren beso amultsuen gozoak besarkatzen dio oroimena ondoren, alaba jaioberria altzoan duela. Oroimen gero eta lausoagoen kulunkan, gero eta gehiago izutzen da otoitz egiten duen aldiro, senideen aurpegiak gero eta urrunago, gero eta ilunago ikusten baititu.

Dagoeneko ez da akordatzen zergatik errezatzen duen egunero bost aldiz, edo oroitzen denero. Familia gogora ekartzeko izango zen hasieran, aitaren esku ihartuekin, amaren ile gozoarekin, arrebaren azal onberarekin eta alaba txikiaren usain samurrarekin gogoratzeko. Baina gero eta nekezagoa zaio. Akaso, ingurukoengandik bereizteko egingo du, bera desberdina dela, hura ez dela bere lekua, eta berak bai, berak itxaropena baduela sinesteko. Bere burua engainatzeko.

MONTAGEK maite du kalaka. Batetik bestera ibilian doala, nekaezin, hitzek ihesi egiten diote ahotik, ematen duen pauso bakoitzaren erritmoan. ideiek buruan min egiten diotela ematen du, eta nola edo hala ateratzen utzi behar diela. Oinei atzera-aurrera eragiten dien antzera, gora eta behera astintzen du mingaina, sekula zerura begiratzeari utzi gabe.

Ingurura hurbiltzen zaion edozeini hasiko zaio hizketan, gupidarik gabe, ondoan nor duen erreparatu gabe. Berdin kontatuko dizkio haurra zenean amak lokartzeko irakurtzen zizkion ipuinak, edo itsasoaren eta ilargiaren arteko harreman ezinezkoen inguruko kondairak. Hasiko da hitz egiten zerua zeharkatzen duten txoriez, lurreko hormigoiairen zirrikituetan hazten diren bitxilore malerusez, edo eraikin ofizialetako banderak nola, leihoetatik zintzilik ikusten diren arropa zaharkituez. Eta, berandu gabe, gero eta urriago dituen gomutak hartuko ditu hizpide. Amak jarrarazten zizkion praka motz beix haiek, galtza-uhak

gorriekin. Esku fin dardartiekin ferekatu zuen lehen gorputz azal-zuria. Eta liburuak, etxeko apalategietan kabituzinik pilatuta zituen liburuak, modu konpultsiboan bata bestearen atzetik irensten zituen liburuak, eta barruraino sartzen zitzaion orri birjinen usaina.

Baina ez ezer galdetu bere egurrezko maletaz. Ahoa itxiko zaio, ezpainak tenkatu, mihia gogortu. Mutu geratuko da... ibiltzeari utzi gabe.

HILTZEN zarenean esan ahal izango duzu hori ez zela bizitzak zuretzat gordeta zeukan ezusteko garratzena. Azkena bai, baina ez latzena. Nondik begiratzen zaion, kateen pisa arintzeko ere baliatu zenezake hori. Nondik begiratzen zaion.

Inor zure gorpuaren ingurura etortzen bada, negar egitera ala benetan hil zarela eta zorrak kitatuko ez dituzula egiaztatzeraz, irribarre erdia ikusiko du zure aurpegian margotuta. Hiltzea ez da izango gehiago kolpe latza zuretzat. Hiltzen zarenean hiltzen zarela ere, ez da lehen aldia izango.

SALGAI guztiak bata bestearen ondoan pilatuta ditu, harmonia kasik perfektuan. Kafe-makina bera bezain zahartuaren ezkerraldean, gaileta-paketeak lehenbizi, opil industrialak gero –madalenak, croissantak eta palmera txikiak–, eta hestebete zorro batzuk eta kontserba-latak azken. Kafe-makinaren gainean, plastikozko edalontziak, azukrea eta

plastikozko koilaratxoak. Makinaren azpiko tiraderetan, infusioak eta kakao-hautsa. Eta eskuinaldean, marka bakarrekotako tabako-paketeak eta egunkariak.

Bata bestearen gainean pilatutako egunkarien orriak bere esku zimurtsu zimelekin laztantze hutsarekin, Fredek badaki atzokoa, herenegungoa ala zaharragoa den. Egunkariak ez du saltzen, eta orain arte bezero bakar bat ere ez da kexu agertu. Denbora geldia antzean dagoenean, gaur, atzo, bihar eta herenegun, enbor bereko ezpal, ez dira horren desberdin. Noizean behin, egunkari-metaren azken alea hartu eta zakarrontzira botatzen du, ez zaharregia delako, baizik eta horaildu eta zurrundutako orrietan hitzak desagertzen hasten direlako, denbora ikusezin horrek gatzigatu nahi izango balio bezala *iaz* eta *aurten* hitzen artean oraindik badela desberdintasunik.

Hozkailu txiki bat dago beste aldean, hiru apalekin. Gorri koloreko freskagarri kafeinadunak goian, hori kolorekoak erdian eta laranja kolorekoak behean. Bere *tabernako* bandera gozo-garratz-gozoa.

Buruz daki, noski, gauza bakoitza non den, eta gero eta mugimendu ahul eta traketsagoak egiten baditu ere —denboraren gatziguak ez dira alferrikakoak eta asko eskertuko luke makulu bat—, nahikoa abilitade badu oraindik batera eta bestera mugitzeko zortzi metro koadro horietan, bezeroen enkarguak zorrotz betez. Irribarre egiten ez du, ordea, indarrik galduko, jakin baitaki bihar ere bezero berberak izango dituela, kafeinadun freskagarriak, tabako paketeak, kafea eta egunkariaren bat, edozein, eskatzen.

Eta itsu jaio izan ez balitz, beharbada berak ere irakurriko zukeen egunkariren bat, atzokoa, herenegungoa ala zaharragoren bat.

HAN zergatik dagoen? Berak ere jakin nahiko luke horrenbeste. Ez da apenas akordatzten, ez du akordatu nahi. Errealitatearen marra gero eta lausoagoa da. Bere oroitzapenen artean bila hasten denean, ez daki zer den erreala eta zer berak asmatua, eta nahigabeak are zakarrago atximurkatzen dizkio gorputzeko gihar denak. Burua gero eta gehiago nola nahasten zaion ohartuko ez balitz, lasaiago legoke. Baina bestelakoa da zoroaren patua. Bere burua bidezidor gero eta estuagoetan nola galtzen den ikusi behar du, nola hazten den koloretako belarra zapaltzen duen porlan grisaren gainean, nola entzuten duen isiltasuna hizketan ari zaizkionean, nola gero eta hitz gutxiago aurkitzen dituen esaldiak eraikitzeke. Zoratzen ari dela jakin dakien hori besterik ez da zoroa.

Atzera begira jartzen denean, gogora datozkio hango eta hemengo herri eta hiriak, esku artean izan dituen fusilak, harriak eta brotxak, jantzi dituen sudur gorriak eta zapata erraldoiak, haurraren negarra eta amaren samina, odolustutako gorpuak, napalmak erretako azalak, zuhaitzik gabeko basoak eta putzurik gabeko urmaelak, bala deslaidatzuk, ukabil jaso mengel bat haizearen menera, erantzunik gabeko galderak, eta zaplazteko bat, eta beste bat, eta beste bat... dena beti lainoan.

Poltsikoan dituen harri biribilei indarrez heltzen die orduan Telmok. Aldean daramatza beti, eta errealtateari estu oratzeko modurik behinena begitantzen zaio. Bi errealtate zati nimitño dira, hauskaitez, leun eta hotz. Baina eskua harri bila patrikan sartzen duenean, paper txatal madarikatu horiekin egiten du topo. Nola jakin du lagunak bera bertan dela? Zergatik akordatu da berarekin horrenbeste udaren ondoren? Barkatu ote dio ezer esan gabe alde egin izana? Sastrakek desagerraraziko zuten azkenerako ibai ahul eta mehar hura, haien nerabe garaiko jolastoki zena? Zenbat arratsalde eman zituen lagunak bertan bere zain, harri eta sasitza artean altxor preziatuen bila? Gomuta horiek guztiak errealak dira ala ilusio huts?

Ate ostean inor zelatan ez dagoela egiaztatu eta gela ti-piaren izkina batean ondo gorde ondoren, enegarren aldiz paperak sakelatik atera, eta tentu handiz zabaldu ditu. Gero eta zimurtuago, gero eta horailduago daude. Izkinaren bat urratuta dago. Tintak ere indarra galdu du nabarmen. Baina idatzitako hitzek ez dute zorroztasun amitiñirik galdu, eta bihotz eroria erdibitzen dioten labana zoliak dira.

Irakurtzen hasi denerako, malkotan ditu begiak.

LARRUAZAL ilunean patua tatuatua zuela jaio zen Karim, orain dagoen lekutik ehunka kilometrora. Edo besteen aurrean hori esatea gustuko du, bere ekintzen ardura gainetik kentzeko ahalegin nekaezinean –larruazalaren kolorea bata ala bestea izan, indar berarekin saiatzen dira denak horretan–. Ingurukoak, besteak –beti besteak– egiten ditu bere

egoeraren errudun, eta higuina eskaintzen die herraz beteriko begirada bakoitzean. Hala ere, urteek aurrera egin ahala, ukabilekin azalpenak emateaz nekatu da. Orain, axolagabe ibiltzen da batetik bestera, besteek idatzi omen dioten patuaren lerroetatik batere desbideratzeko gogorik gabe, bere bidearen helmugara iritsi dela sinetsita.

Aski du usain urrunen akordua bidean ez erortzeko. Gazte zela, arrebarekin lapurretan ibiltzen zen bizilagunen etxeetan. Jatekoak besterik ez zituzten hartzen, toma-teak, alberjiniaren bat edo urazak inguruko baratzeetatik, eta zorteko zeudenean, edo goseak akabatzen ia, oiloren bat ere harrapatzen zuten etxetik gertu zegoen oilategi industrialean. Gogoan ondo iltzatua dauka lapikoari zerion usaina amak jaki haiek guztiak prestatzen zituenean, nola lortu zituzten galdetzeke. Orain sukalde, orain egongela, orain logela zen etxeko gela bakarrean familia dena elkartuta, eskutik eskura joaten ziren platerak, erdi hutsik ia beti. Isilik egoten ziren, burumakur, nor bere gosearen hausnarean, inguruko meskitako bozgorailuek erredera joateko deia zabaltzen zuten arte. Orduantxe, emakumeek traste denak jaso eta sukaldea egongela bihurtzen zuten, hurrengo egunean atzera sukalde bihurtzeko esperantza urriarekin.

Atira alaba munduratu zenean, haren larruazal jaioberraren lurrin gozoak gainezka bete zituen gela zabar haren izkina guztiak. Karimek orduak eta orduak ematen zituen bereak lakoak ziren begi beltz handiei so, egunetik egunera handitu eta handitu egiten zirenak, inguruko xehetasun bakar bat ere galdu nahi ez balute bezala. Atiraren begietan kulunkan gozo, bere tripetan ozen durunda egiten zuten gosearen lanturuak ere entzunezin zitzaizkion.

Eguna lainopean esnatu zen goiz batean alde egin zuen etxetik, iparralde oparora.

Bi egun zeramatzaten sukaldea zapaldu gabe.

EGURREZKO maleta aldean zuela iritsi zen hona Montag. Ohe azpian gorde zuen berehala, eta han da geroztik, bizilagun dituen guztien begiradetatik aparte. Gutxi dira haren barrua ikuskatzeko aukera izan dutenak, beti bere gogoaren kontra. Aurpegiko gihar denak tenkatuta, begiak betzuloetatik atera beharrean, amorruzko begirasuna egiten die latexean bilduta maleta ireki eta barrunbeak arakatzen dizkieten eskuei. Birika, giltzurrun eta gibel artean bihoztaren bila ari zaizkion sentsazioak gain egiten dio.

Montagen gorputz txiki zimurtuan ez bezala, kolore iluneko maletaren egurrean ez du ematen denborak arrastorik utzi duenik. Laukizuzena eta handia da, eta erraz kabituko lirateke bertan bere liburu kuttun denak –eta ez dira gutxi–, edo liburu horietako pertsonaien traste guztiak: Bloomek jateko horren gustuko zituen hegazti eta piztien hazikontxo, gibel eta giltzurrun egosi, arrautzeztatu edo erreak; Alicek ispiluaren bestaldean lagunekin tea hartze-ko erabili zituen kikara, platertxo, teontzi eta koilaratxoak; Penelopek Laertes-en hil-oihala ehuntzeko erabili zuen hari amaigabe hura guztia; edo Corto Maltesek mundu luze eta zabalean batetik bestera bildu zituen sentipen denak.

Ohatze estuaren ertzean eserita egoten da ordu luzez, hanka laburrak zorura iristen ez zaizkiola, kulunkan, oin txiki biziak maletaren kontra kolpeka, klok-klok, leihoaren

bestaldean ikusten den zeru zatiari ia begirik kendu gabe. Klok-klok, klok-klok. Gero eta azkarrago, gero eta urdu-riago. Klok-klok, klok-klok, klok-klok. Atea noiz irekiko zain. Aspaldi galdu zuen lo egiteko ohitura, eta beti esna, beti erne egon behar horrek eskukadaka husten dio barrua, gero eta mendreago egiten bizia. Klok... klok. Oharkabea biltzen zaizkio begiak, eta konturatzeke egiten du lo arina, harik eta atea irekitzen den arte.

Kanpora atera eta barruan segitzen du.

BEGIRATU diezu gainerakoen eskumuturrei? Hemen inork ez dauka ordularirik, ez eskumuturrean, ez poltsikoan, ez beste inon. Hemen ez da ordurik. Goiza dago, arratsaldea eta gaua. Itzalez janzten den eguna eta iluntasuna barreiatzen duen gaua. Harrizko banku eta mahai huts luzeak dituen jangelako hormetarik batean eskegita dagoen plastikozko erlojuari hiru orratzak falta zaizkio. Metafora perfektuetan perfektuena. Ez dago ordurik, ez minuturik, ez eta segundorik ere.

Hemen giltzak dira denboraren neurgailu. Giltza kolpeek esnatuko zaituzte goizero. Giltza kolpeekin ohartaraziko dizute finitu dela goiza. Giltza kolpeek gaztigatuko dizute badatorrela gaua, bere tapaki beltzarekin iluntasuna barreiatzera. Eta atzera berriro hastera, metalak metalaren kontra egiten duen zarata idorrek barrenak berriz inarros-ten dizkizunean. Kax-kax.

Hemen giltzak ez dira gehiago atearak zarratu eta irekitzeko. Edo ez behintzat irekitzeko.

GERO eta makurrago dabil Fred, eta gero eta sarriago egoten da *ospitalea* deitzen duten gune apartatu horretan. Azal zuri histuan handik eta hemendik ageri dituen orban marroixkak omen dira orain medikua esaten dioten begirada axolagabedun horren kezka nagusia, bata zuriaren eta antiojoen kristal lodien atzealdean ezkutatuta, beharrezkoa dena baino arreta gutxiago eskaintzen badie ere. Medikua, gizon horrek, esan dio, ahots lakarrez, zimur artean bistan dituen makula ilunak gero eta nabariagoak direla, areago bere ur koloreko begi ia gardenen inguruan. Burua ere soilitzen hasi zaio nabarmen, *ospitalearen* kanpoaldean dagoen akazia erdi-erori bakartiari hostoak erortzen zaizkion abiada berean. Haize ufada bakoitzarekin dozenatik gora. Hura ere gaixo dagoen seinale. Belarria leihoko kristalaren kontra jarrita, aise entzun dezake nola askatzen diren hostoak adaxka luzeenetatik.

Lau ohe daude gela karratuan, errezel horailduekin banatuta, zein baino zein estuago. Inoiz eztulen bat entzun izan du Freden inguruko oheren batetik, baina azken bisitetan, esango luke bakarrik dela. Egunean bitan bisitan etortzen zaion medikua da egunotako konpainia bakarra, beti zigarro-mutur piztua eskutan, atzamarrak erre beharrean. Kearen usain mikatzagatik daki Freden –iragazkia ere erretzen ari den seinale– azkenetan dela zigarreta.

Etxera. Bata zuriaren ezker poltsikotik paper hori zirmurtu bat atera eta eskura luzatu dio medikuak. *Sinatu behean.* Eskuineko patrikan bila hasi da orduan. Pilula kutxa txiki bat atera eta ohe ondoko mahaitxoan laga dio. *Mina badaukazu, bat hartu. Eta ez kafeinarekin nahasi!*

Jaiki eta ohe ertzean eseri da Fred. Mesanotxe gaineko pilula kutxa txikia hartu eta kaleko arropa eramateko darabilen plastikozko poltsa zurian sartu du. Min duenero bat hartuta, halako ehunka beharko lituzke urtean. Eguneko bat. Kutxa oso bat. Etxeko zapatilak jantzi eta, nola edo hala, lortu du ohetik altxatzea. Eta zain geratu da, norbait bila etorriko ote zaion, pasillo luze berdearen bestaldean dagoen bere etxera eramateko.

TELMO laguna:

Izan zirelako, edo izan baziren ere, gu ez gara, inoiz izatea desio izan bagenuen ere. Eta ez garelako, edo ez garen arren, izango dira... ala ez.

Gauzak zer diren, kamarada! Gogoan dut haur ginenean nola jolasten ginen erreka bazterrean urak uzten zituen hondakin haiekin guztiekin. Eta gogoan dut egur eta zaborren artean agertu zen burdinazko xafla hark nola aldatu zituen gure bizitzak. Izar gorri bat zeukan alde batean margotua (orban gorri bat besterik ez zena zure irudimenaren galbahe-tik iragazi aurretik). Sekula halakorik! Baina gazte ginen, eta zure imajinazio amaigabeak egin zuen gainerakoa. Potemkin korazatua gure bila etorriko zen, soldadu hartuko gintuen eta munduan iraultza gorria zabaltzera joango ginen.

Iraultzaile ona izateko jarraibideak biltzen zituen pan-fletoan irakurri genuenaren arabera, liburuak, erosi ez ezik, lapurtu egin behar ziren, eta horrenbestez, zure osaba Peioren liburu-dendan tapa berdeak zituen entziklopedia erraldoi hura “nazionalizatu” genuen. Eta bertan topatu genituen

geure heroiak, kapitalismoaren mamuak. Zuk Vladimir Ilitx izan nahi zenuen, eta nik, berriz, Pancho Villa. Eta zuk ezetz, hura kategoria gutxikoa zela eta Leon Trotski izan behar nuela. Erreka bazterretik egur luze bat hartu eta, Arturo erregeak nola, iraultzaren komandante-orde izendatu ninduzun, hiru ezpata kolpez. Eta handik egun batzuetara joan zinen.

Gauzak zer diren, kamarada! Urteen iragateak oroimena lausotu didalako izango da akaso, baina gogoan dut alde egin aurreko egunean esan zenidala Potemkin korazatuaren etorrera hurbil zegoela, eta gau osoa emango zenuela erreka bazterrean haren zain. Amaren errietaren beldur nintzenez, bakarrik utzi zintudan esperoan. Eta geroztik, urteak joan urteak etorri, ez zaitut berriz ikusi. Korazatua herdoilduko zitzaizuen akaso, edo ideiak, sagarren antzera, zuhaitzen arrametatik abailduko, baina, egiari zor, prakak txiki gertzen hasi zitzaizkigunean, mundua handi geratu zitzaigun.

Eta orain, bizi beharrean, hiltzen goaz pixkanaka. Orain, erreka bazterretan eta zubipeetan ez dago umerik gehiago. Gosez hiltzen garenon habiak dira.

Gauzak zer diren, kamarada! Gehien gorroto genuen zibilizazioaren hiriburutik idazten dizut, hiri zabar eta hitsetatik. Urrun geratu zaizkigu, geratu zaizkigunez, Vladimir Ilitx, Pancho Villa, Leon Trotski, Potemkin korazatua eta gaztetako ilusio gorri guztiak. Zu joan eta urtebetera erreka bazterrean aurkitu nuen gitarra da bala iraultzaileak desarratzeko gertzen zaidan arma bakarra. Hori, oin biluziak eta gosea dira nire ondasun guztiak.

Garbitegietan jendeak ahaztuta uzten dituen arrokekin janzten naiz, berdin txikiak, handiak, koloretakoak, garbiak edo zikinak. Eraikin erraldoietako denden erakusleihoetan

neure burua ikusten dudanean, abandonatutako zirku batego pailazo patetikoaren antza dudala begitantzen zait. Paparrean harro eramaten genuen izarraren ordezt, vodka gorritutako pailazo-sudur bat da orain nire duintasun guztia... eta ez da gutxi.

Gauzak zer diren, kamarada! Gazte ginela mundua salbatzeko goseak akabatu behar gintuen, hazi ginenean ez genuen mundua akabatu behar zuen gosea akabatzerik lortu, eta orain, munduak gu akabatuko gaitu gosez. Zu hor eta ni hemen.

Mundu osoko pailazo ahaztuok, batu zaitezte, altxatu zuen vodka kopak eta egin topa hil behar gaituen munduaren alde!

Paperak airera altxa, eta harri bat bestearen kontra jodu. Klask! *Topa!*

BADIRA hiru gau Karimek begirik biltzen ez duela. Arrebaren gutunik ez zaio iritsi eta zeharo aztoratuta dago. Herenegun jaso behar zuen, edo bestela atzo. Ezinezkoa da gehiago atzeratzea. Sekula ez da hainbeste atzeratu. Horman dagoen zulo handi bat da bere apalategia, eta hantxe gordeak ditu, bata bestearen gainean, orain arte jasotako gutun guztiak. Eta ez dira gutxi. Gutun-azal arrea eta orri zurixka bakarra beti, kaligrafia apur bat nekatuarekin, hasi bezain pronto bukatzeko gogoaren salatari. Edo esateko ezer berririk ez izatearen ajea.

Izan ere, beti kontatzen dizkio gauza berberak, nahikoa hitz antzekoekin. Aita oso gaixorik dagoela, betiereko

hilzorian. Amak negarrez ematen dituela egunak. Eta gauak. Negar-zotinka entzuten duela, eguzkiak alde egin orduko, ohean etzaten denean. Atirak ikasi duela lau hankan ibiltzen. Eta oinez gero. Eta hasi dela hitz solteak esaten, gutxi batzuk hasieran, baina pixkanaka esaldi gero eta luzeagoak josten dituela. Galdetzen du: izarrak egunez ere izarniatzen dira? Edo galdetzen du: nora doa beti pasieran dabilen haizea? Eta bi begiak irekitzen ditu kasik min emateraino, erantzun baten zain. Etxe ondoko oilategia aspaldi itxi zutela kontatzen dio. Langile denak lanera zihoazen goiz batean atea itxita aurkitu zutela eta barrutik ez zela kukurrukurik entzuten. Eta jendeak saldoka alde egin du herritik. Agureak eta atsoak besterik ez dira geratzen herrian, geroz eta gutxiago. Berak ere hanka egin nahiko luke, nahinora, baina bihotzak krak egiten dio aita eta ama bertan bakarrik hiltzen utziko dituela pentsatuta. Ondo etorriko litzaieke denei tarteka herrira erortzen den misil galduren baten azpian azken hatsa ematea. Gerra madarikatua. Baina Atiraren begi ilun handiek ez dute hori merezi. Eta hala ere, ematen du ez dutela beste ezer ikusiko.

Gero eta izar gutxiago agertzen direla zeru gainera. Haizeak aspaldi utzi ziola pasatzeari.

Gaua da eta leiho tipitik kanpora begiratu du Karimek, zeru zati baten bila. Han ere ez da gehiago izarrik izarniatzen. Ez gaeuz. Ez egunez.

EGUNAK argitu duenetik, geldi-geldi dago Montag. Erorita ditu besoak; eta burua, ohi bezala, gora, zerura begira. Euri

txikia ari du, eta bera da han dagoen bakarra, mugitzeke, harri bihurtuta kasik. Inork hitz egingo balio, ez luke ezer entzungo. Inork ukituko balu, ez luke ezer nabarituko. Harri da, edo hormigoi hobe, inguratzen duten hormek irentsi balute legez.

Gero eta bustiago ditu jantzita daramatzen praka arreak eta xira fin beltza. Ile zuri bakanen artetik aurpegira labaintzen zaizkio euri tantak, eta hortik, lur bustian galtzen dira gero. Haizerik gabeko euri egunetan ohikoa denez, denborak izoztuta ematen du, altzairuzko oinak putzuen gainetik arrastaka, mantsoaren mantsoz ia mugiezin. Harri denbora. Edo hormigoi denbora, hobe.

Aspaldi behar lukete hemen. Behin eta berriro errepikatzen dio bere buruari, zerutik begirik kendu gabe. Aspaldi. Baina hodei zuri grisaxkak besterik ez dira ageri zeruan, mantu lodi, pisu eta geldoa. Harri hodeiak. Edo hormigoi hodeiak, hobe.

Gogoan du etorri ziren eguna. Eguzkiak hodeiak zultu eta inguruak kiskaltzen hasi zenean izan zen. Halakoxea baita hemen giroa, hotzak akabatu beharrean lokartu, eta, esnatu orduko, hasi da eguzkia inguru dena erretzen. Ez espero hemen eguzkiaren laztan gozorik. Haragia sakon mozten dute izpiek, aho zorrozdun labanek nola. Halaxe iritsi ziren enarak, egun argiz zerua urratzen, ez oso urrutiko lurraldeetan habia egitera. Txori aldra bat iritsi zen lehenbizi, eta beste zenbait denbora gutxira. Eta urtero ikuskizun iheskor bera, hotzarekin ezkerretik eskuinera eta eskuinetik ezkerrera beroarekin.

Iluntzen hasi da eta ez da enararik ageri zeruan.

—Akabo! Ahantzi dira gurekin.